

ttipi-ttapa

1993.eko Uztailak 15

114. zenbakia

dohain banatzen da



**ASTEBURU HONETAN BAZTANDARREN
BILTZARRAREN XXX. EDIZIOA**

5.400 Harpidedun
18.500 Irakurle *

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

* Datu iturria: Nafarroako Gobernuak egindako audientzia estudioa

non-zer

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/26 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortzirriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Elizondoko bestei buruzko Gehigarri berezia.

27 KIROLAK: Berako Txipi taldea izan zen garaile Bortzirietako futbito txapelketan.

28 ELKARRIZKETA: Miguel Lekuona, Goizuetako alkatea: «Diru banaketaren arabera, lehen eta bigarren mailako herriak dau- de Nafarroan»

Aitor Arozena

30 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO

ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Uztailaren 17-18an**, Lesaka, Narbarte eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Uztailaren 24-25ean**, Etxalar, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

W Bestak

► ELIZONDO

BAZTANDARREN

BILTZARRA

Uztailaren 18an
(ikus xehetasunak 20. orrialdean).

W Erakusketa

► ELIZONDO

Uztailaren 16ean
(ortziralea), arratsaldeko 7etan, Baztandarren Biltzarra 30 Erakusketa Retrospektiboaren inaugurazioa Arizkunean.

W Bestak

► ELIZONDO

Uztailaren 24tik 28ra
(ikus xehetasunak erdikaldeko gehigarrian).


► ITUREN

Uztailaren 16tik
20ra. (Ikus xehetasunak 16. orrialdean)

► ELGORRIAGA

Uztailaren 23tik
26ra. (Ikus xehetasunak 17. orrialdean)

W Bota bertsoa



Angel IRURETA

Baztango Bertso Eskolakoa

Gaia: Udan, hondartza ala mendia

Doinua: Peñagarikanorena

Benetan zaila jarri didate
gai hain xeble honekin
beti zalantzak sortzen zaizkigu
bi udaleku hauekin
batzu batekin geratzen dira
besteak bestearekin
eta ni berriz biekin
ados al zaude nerekin (bis)
bada garaia buka dezagun
betiko kontuarekin
hodartza izan mendia izan
geratu nahi duzunakin (bis).

Mendi askotan aurki daitezke
bake ta lasaitasuna
zuhaitz guztien hosto ederren
kolore aniztasuna
hondartzak aldiz eskeintzen digu
giro ezberdintasuna
uren mugikortasuna
olatuen batasuna (bis)
baina dena den onar dezagun
bi hauen elkartasuna
azken finean biak bait dute
berezko edertasuna (bis).

Ikastaroak

PIRAGUISMO

Bortzirietan, uztailaren 26tik 30era. **Leitzaldean**, abuztuaren 2tik 6ra, **Malerrekan**, abuztuaren 9tik 13ra. **Baztanen**, Abuztuaren 16tik 20ra.


PARAPENTE

Elizondon, uztailaren 19tik 23ra. Hilaren 22 eta 23an biplaza hegaldiak egingen dira.

Informazioa: BKZ, Santiago 22 - ELIZONDO. Tfnoa: 580490.

Gastronomia

LIMOI MOUSSEA



Peio TXINTXILLAK emana - HUIZI Jatetxea - GOIZUETA

Osagaiak 10

lagunendako:

Hamasei yoghurt natural, esne kondentsatu lata bat eta zazpi limoi.

16 yoghurt naturalak, esne kondentsatua eta 7 limoien

ura, limoi azalen "ralladura-ekin" batera bol batean jarri.

Guzti hau ongi ongi irabiatu edo batitu eta bakoitzaren dako ontzitxo batean serbitu. Pixko bat apaintzeko limoi "ralladura" jarri.

Baserriko feria



Bertsoak

ELIZONDO

Uztailaren 17an, Baztandarren Biltzarren bezperan, gaueko 10etan udal pilotalekuan: Xabier Euskitze, Ion Sarasua, Unai Iturriaga, Ion Enbeita, Manolo Arozeña eta Millan Telleria. **Gai-jartzailea:** Bittor Elizagoien

ZERRIKIA

•**Zerrikumea** (20 kilo-koa): 3.650 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 145 pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....550
2.koa.....535

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....575

1.koa.....565
2.koa.....550
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 450 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 20.000-22.000 artean eta idixkoak 32.000-38.000 Pzta. artean.

Mestizoak: urruxak 32.000 artean eta idixkoak 40.000-47.000 Pzta. artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

J. M. ANDUEZA

X Sua mozteko ateak

- Metalikoak
- Egurrezkoak
- Kristalezkoak
- Korrederak.
- Segurtasunekoak

X Garajerako edozein motatako ateak, neurrira eginak

- Automatikoak eta eskuz ireki beharrekoak

Tfnoa eta Faxe: 630854 - BERA

SOINU eta ARGIAK ALOKATZEN DIRA



- Bertsolariak, Rock
- Mitinak, gaztetxeak...
- Ostatu eta txoznetan ere montatzen ditugu.

☎ 631059

☎ 630970

BERA



► Ixaso Mena

Elizondoko gaztea

► Lanpostu bat lortzeko EGA bai ala ez? Bai, baina baldintza bezala bada-go.

► Santioak ala Baztandarren Biltzarrak? Biak gustoko ditut.

► Telebistako lehiaketak ikusten dituzu? Batzuk bai, kalejira...

► Zein da ikusi duzun azken pelikula?

Dos pajaros de un tiro.

► Zapatak ala sandaliak? Zapatak.

► Gosaltzeko kafesnea ala arraultze prexitiuak? Kafesnearekin nahiko.

► Gazteak langileak ala alferrak dira? Denetarik dago.

► Hondartza ala pizkina? Pizkina.

► Oporretan no?at? Asturiasera, Picos de Europa.

► Amets bat? Lana izatea.

► Stalingrado

Joseph Vilsmaier
Alemania-93

Txekoeslovakia, Italia eta Finlandian grabatua, "Stalingrado" gerraren aurkako gerra pelikula da. 1942ko udaran Errusiako hiri horretan gertatutako guda odoltsuaren berri ematen du filmak, nazien ejerzitotik desertatzen duten lau gizonen ikuspegitik. Tankeen arteko borroka agertzen duen sekuentzian, zinearen historian inoiz erabili diren tanke kopururik haundiena agertzen da eta luzemetrai honen zatirik interesga-



Tankeen arteko borroka agertzen duen sekuentzia da pelikulako zatirik ikusgarriena eta interesgarriena

rriena eta ikusgarriena da. Errealismoa haunditzeko, pelikulan 12.000 uniformetik goiti, 3 tonelada inguru lehegailu erabali dira, egiazko 100.000 bala baino gehiago tiratu, 200 espezialista baino gehiagok lan egin dute eta

bertze 200en batek osatu dute talde teknikoa.

Bitarteko guzti hauek kontutan harturik, Alemaniako zinemagintzan azken aldi hone tan egin den filmarik garestiena izan da "Stalingrado", 1.400 milioi pezetako (62 milioi libera

inguru) aurrekontuarekin.

Munduko estreinua urtarrian egin zen Kolonia eta Moskun, naziak Stalingradon behin betirako errenditu zireneko 50. urteurrena gogoratzearrekin batera.

AITOR

OKANE

- Haragi
- Janari-izoztu
- Enbutido
- Jogurt...


Kanttonberri 4,
Tfnoa: 63 00 18

BERA

❖ Zure ingurua klase guztako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA


LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ☞ Inprenta lanak enkarguz
 - ☞ Kautxuzko zigiluak
 - ☞ Kartelak eta fakturak
 - ☞ Enkuadernazioak...

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA



Aurtizko egunean giro bikaina

110 pertsona bildu ziren ekainaren 26ko gauean Iturengo Aurtizko auzoan Hanphryren askatasuna lortzeko fidantza ordaintzeko egindako afaria eta bestan. Afalondoren, bertsolariak, Mikel Markez eta Jon Bergaretxe aritu ziren giroa animatzen. Dantzaldia egon zen honen ondotik goizaldera arte, Joxe Angelen eskutik.



Arkupeak elkartearen sariak banatu ziren

Arkupeak elkartearen zozketaren sariak banatu ziren. Lehena Ur-dazubiko Rosario Etcheberriarentzat, bigarrena Berako Casimira Zelaiaarentzat eta hirugarrena Iruritako Julita Perezarentzat

Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Leitzaldean

Osasunbidearen euskalduntzea eskatuz 1.791 sinadura bildu dira



Osasunbidearen euskalduntzea eskatuz zonaldean egindako sinadura bilketan 1.791 firma bildu dira. Horietatik 979 Bortzirietan bildu dira, 635 Malerrekan, 144 Leitzaldean eta 33 baka-rrik Baztanen.

Kopuru honi Larraun, Araitx-Betelu, Basaburua, Imotz eta Ultzaman bil-dutakoak gehituz, guztira 2.274 sinadura lortu dira

Nafarroako iparraldean burututako kanpaina honetan.

Idatzian, "gure egune-roko eta berezko hizkun-tza denez, eta Euskararen legeak babesten gaitue-nez, gure herriko kon-sultatan euskaraz atendi-tuak izatea" eskatzen zen, hau betetzeko Osasunbi-deari eta Nafarroako go-bernuari beharrezko neu-riak hartzea esijituz.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



LORENZO ZUBITURREN ASMOA DELA ETA

ttipi-ttaparen ekainak 17ko zenbakian eta Leitzako orrian, Lorenzo Zubiturreri buruzko berri bat argitaratzen da.

Esaten denez, Zubitur jaunak herriko 15 gazteei hargin ofizioa erakusteko asmoa du, horretarako bere pabeloi baten legeztapena eskatuz. Legeztapen hau ez bada ematen, lanpostu horien galtzea "alkatearen bizkar" botako litzatekela gaineratzen da. Beste alde batetik, arazo hau dela eta, jaun horrek herriko tabernetan fotokopia pila bat jarri du.

Gai honi buruz, puntu batzuk argitu behar ditut:

1.- Interesatuak berak dakien bezala, gaur pabeloi horiezin da legeztatu. Bere egunean udal baime-nik gabe, legezkontra egin zen eta.

2.- Zubitur jaunak aipatutako 15 gazteekin bere lanak egitea nahi badu, horretarako udal eraiki bat utziko diogu. Gehiago esango dut: batzarraren azken bileran, Herriaren bagera bat eskaini nuen. Hori ez bada bere gustokoa, beste aukera batzuk ere aztertu daitezke.

3.- *ttipi-ttaparen* zenbaki berean, Lorenzo Zubiturren anai batek salgai jartzen

duen borda-aterpe bat agertzen da. Borda egiteko, obra laborantzako tresnak gordetzeko zela esan zuen baimena eskatu zuenean. Eraiki hori dagoen tokian Industri Zonaldea dago eta aktibitate industriale-rako behartzeekin txabola kentzeko baldintzarekin baimena eman zitzaion. Baina denak ikusi dugu zer egin duen berarekin.

Beharrezkoa da jokaera hauek zuzendu eta egokitzea.



Juan ORONOZ
ZABALETA
Leitzako Alkatea

HAUNDIKERIA

Nora zoazte? hodeiak ikutu nahiean hain harro zuek besteen gainean azal aldakor horrekin, zuhaixkak zapaltzen zuek, haritzek jantzitako pinuak ez, ez zarete konturatzen beste arboletako zainek ere lekuri behar dutela zuek eragindako ozpelak ez dio bakea ere inori barkatzen gaur gauez zuen abarretan haizeaz sortzen den ahotsak aitortu digunez zuen enborreko bihotza nahiko ustel omen dago zuek, haritzek jantzitako pinuak nora zoazte hain harro?



Jose Javier ELIZALDE
Ilarregi (Ultzama)
15.808.094

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendarak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue

- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan egiten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603
IRUN




Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598
ERRETERIA

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoak
- Ate korredoreak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

Udal aurrekontua: gerrikoa estutzeko ordua etorri da

Iaz 393 milioi pezetako aurrekontua, aurten 206 milioikoa

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Azken urteotan udalak egin dituen inbertsio indartsuek (Polikiroldegia, Futbol zelaia...), aurtengo aurrekontua ajustatzera behartu egin dute. Udal-langilegoari dagokion kapitulua ez ezik, murrizketa atal guztietan banatu da. Hortaz gainera, udalak Nafarroako Aurrezki Kutxarekin daukan 110 milioi pezetako kreditoaren amortizazioan urte bateko urritasuna edo karentzia eskatu dio udalak aipatu erakundeari.

Hirurteko Plangintzako egitasmoak

Biproiektu hau ndi daude honetan. Batetik Zalaingo saneamendua (35 milioitik %70a Diputazioak ordaintzeko) eta bertzetik Berako ur-zikinen depuradora eta kolektoreak (140 milioi, %90a Diputazioak ordaintzeko).



Alkaiagako bestak uztailaren 24 eta 25ean

Uztailaren 24ean emanen zaie hasiera arratsaldeko 4etan botako diren altxaferoekin eta Berako trikitixaren itzuliarekin. Ordu bat beranduago Haur Jokoak izanen dira eta segidan txokoltia banatuko da haur guztiei. Gau partean dantzaldia Tapia eta Leturia eta ZUP taldearekin.

Santiago egunean bi kirol proba izanen dira. Goizeko 11etan probarik nagusia: Alkaiagako Mendi Bizikleta Itzulia auzoan barrena, eta auzo-bazkariaren ondotik, arratsaldeko 6etan urteroko sokatira. Zazpietan Gure Txokoako Dantzariak eta segidan Bera eta Lesakako trikitixak.

Clow-antzerki ikastaroa

JON ABRIL

Uztailaren 26tik 29ra Kultur Etxean 24 orduko Clow-antzerki ikastaro iraunkorra eskeiniko da. Kurtsoa 'Bai Teatro'ko Ramon Albistur eta M^a Agirrek zuzendua izanen da. Antzerki jokuan oinarriturik egonen da ikastaroa, baita inprobisaketan ere (bakarka eta taldeka), clow-a ezagutzearen. Pertsonai hau ez da maiz zirkoan aurkitzen dugun pailazoa, antzerki pertsonaia baizik, aktore bakoitzak bere izateak eskeiniaz.

Gutxieneko adina 18 urtekoa da, esperientzia izan ezean, eta ikastaroan 16 lagunek parte har dezakete. Ordainkopurua 8.000 pezetakoa da. Xehetasun gehiagorako edo ize-na emateko honako telefonora deitu (943) 632696.

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

TXOKOA OSTATUA

X Eguneko menua
X Asteburutan, kaxuelak eta karta
X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
X Pintxoan espezialduak X Gazte giroa
Tfnoa: 630286, Altzate • BERA

LOZOTEGI-JARDONE



Itzea 3, 630786 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

LESAKA

Sanferminek eguraldi ona eta giro hobea ekarri zuen

Espero bezala, ez zen arazorik izan Sanfermin eguneko prozesioan


AITOR AROZENA

Aintzineko asteetako eguraldi kaxkarra ikusita, bazirudien Sanferminek "milagroa" egin zuela, bestarako eguraldi espeziala ekarri bait zuen.

Bertze gainerakoan, aurtengoan normaltasunera bueltatu ziren bestak eta ez zen dantzari eta musika bandaren arteko istilurik izan. Hori bai, zenbait egunetan bi txaranga izan ziren, "Izar" ofizialarekin batera "Los Incansables" ere aritu bait zen, beren zale batzuren ekimenari esker.

Peñen egunean, goizeko danborradaz gain, ohitura bihurtzen ari da arratsaldeko bustialdiaren ondokoa ere.

Hurrengo egunak, haurrena eta ezkonduena izan ziren, baita jendetzarena. Larunbatetan, behinipein, ttikia gelditu zen Lesaka hainbertze kanpotarrekin.



W ttipi-flash

❑ **Atletismoan** Nafarroako bi txapeldun ditugu herrian. Rafa Maritxalar 1.500 metrotan eta Jesus Mari Calvo 10.000 metrotan.

❑ **Kubarako** lan brigadak ez ditu lagunduko udalak, PNVk kontra botatu bait zuen. Laguntzak herrian bertan beharrean daude-nei eman behar direla lehenik erran zuen alkateak.

ONIN
Agentzia

Albistur 53. ☎ 637359 - LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zuzarren-en kolaboratzaileak



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

LORA DENDA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza


XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

Eskola ondotik 52 gazte ikasketak egiten

BUP, COU, FP, REM, moduloak eta karrera egiten dutenak batuz

ANABEL eta ALBERTO

Herriko 40 lagun ari dira ertaineko ikasketetan BUP-COU Lekarotzen 7; FP2 Beran, 1; REMeko 1koa Beran, 14; REMeko 2.a Beran, 5; Moduloak Beran, 1; FP1 Mugairin 1; FP2 Irunen, 2; REMeko 1koa Irunen, 1; Moduloak Donostian, 1; Iruñean BUP, 3; Elizondon REM2, 4. Maila haundiagoko ikasketak edo «karrera»tan: Irunen, Puerikulturaren, 1; Donostian filosofia, psikologia, magisteritza eta ingenieritza bana, Gasteizen ingenieritza 1, Leioan Kaze-taritzan 1 eta Iruñean ekonomia, erizaintza, turismo, enpresagintza eta botigagintza bana.



Gaur ia dena motorrez egiten da, baina garraio modu zaharrak oraindik ere ikus daitezke, bazka edo pentsua etxeratzeko

Jauregiatarren urteko bazkaria

Etxalar herri ttikia bada ere, jende batzuk auzokoe-kin biltzeko gogoak agertzen dute. Inarreta da lehenbizi hasi zena, gero Antsolokueta eta azken bi

urte hauetan Jauregiak. Uztailaren 4ean 89 bazkaldar bildu ziren, eta musika soinuak lagun izan zuten ilunabarreko bederatzia arte. Arratsaldean gasna eta ogia ere banatu zen arratsalde erdian.

Sara-Etxalar

Sarakoak kexu dira Etxalarko azientak Saran sartu eta kalteak sortzen dituztelako, udalak base-ritarrei jakinerazi dienez. Hauek ere, ordea, ez dira konforme saratarrekin, hango animaliak ere hemengo lurretan sartzen baitira. Udalaren ustez bi Udalak bilduz eman behar zaio konponbidea aferari, aspaldiko mendeetan eginketu den bezala.

Udalbatzak motocross pistarako emandako lizentzia kentzea erabaki du. Halere, alegazioa sinatu duten zenbait oroitarazi nahi die galerazia dela komunaletan ahuntz eta behiak uztea.

SASKI
OSTATUA
LESAKA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

KOXXKONTA



Sagardoa
botiletan
salgai

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA


f
FOTO
MENA
ELIZONDO

Komuniotako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

IGANTZI



Bete betean sarturik gaude uda giroan

Eguraldiak, egia erran, ez du horren itxurarik eman bainan tira...

OSKAR TXOPERENA

Tradizioa izaten da, bertalde, San Juan ondo-ko igande hauetan meza nagusia San Juan Xarren egiteko. Argazkian ikus daiteken bezala jende mordoxka ibiltzen da eskalere-

tan gora eta behera.

Gure adintuak ditugu aipagai oraingo honetan ere, aunitz izandu baitira Biltokiko bazkari ederra goraipatuz zuzendu zaizkigunak. Hortxe dituzue batzuk goi horretan.

Sebastina, Jose eta Ba-

tixtak ere ongi merezitako omenaldia jaso zuten Arkupeak elkartearengandik 85 urte betetzerakoan.

Azkenik aipatu etxean dagoela Bixente Mendibilekoa ospitalean aste larri bat pasa ondoren, suge batek autsikituta.

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Egunko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



San Juan Dermio elkarteari dirua aurreratuko zaio

Bertzalde, San Juan suaren ohitura auzoetan bakarrik bete zen

MIRARI eta MARTA

Udalak *San Juan Dermio* elkarteari dirua aurreratzea erabaki du, bere egoera normalizatzeko eta egin behar dituen gastuak ordaintzeko, kontutan harturik San Juan izenean dau-den mendiak herriak erosteko akordio bat dagoela.

□ **San Juan** bezperan ohitura den bezala sua egiten da. Hala ere aurren, pena da baina, herrian ez zen surik egin. Badirudi jendea ez zela kajak biltzera animatu. Hala bada, lehen-go batean bertako batek erran zigunez, Osiña auzoan bakarrik egin zen sua. Ez pisutan eta ez frontoian ez zen egin. Bertzaldetik,



85 urteko borts arantzatar omen-
du ditu Arkuppeak elkarteak: Goian,
ezkerretik eskuinera, Candida
Jorajuria, Angel Mutuberria eta
Maria Mitxelena. Behean, Con-
cepcion Larretxea eta Lucia Pe-
trirena

OSKAR Arg.

baserrietan bakoitzak bere
sua egin omen zuen, Aientsa auzoan Miaka
mendian kuadrilla bat bil-
du zelarik.



ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE



ATERPE
jaretxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

*Sendatzeko modu
naturala da.
Interesatzen bazaizu
deitu telefono bontara:*

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAIAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKALERA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUN

SUNBILLA

Haurren Eguna ospatu zen ekainaren 23an

Olentzeroan bildutako diruarekin antolatu zen

IXABEL eta JOSUNE

Ekainaren 23an haurren eguna ospatu zen Sunbilla-ko frontoian, eskolako eguna zela probextuz. Giro ederra sortu zen, haur eta gurasoen artean. Gainera, haurrek jostatzeko 8 poni, 3 oilar, basurde bat eta bi zezen ttiki ekarri ziren eta ez da erran beharrik haurrak gustora aski parte hartu zutela.

Arratsaldeko bortzeta-
tik zazpietara izan zen erakusketa hau eta aipatu behar da ikuskizun hau bereaiek Olentzero egunean bildutako diruarekin egin zela eta bestetarako buru-



Zoologiko koxkor bat jarri zuten haurrek ongi pasatzeko, eta gustora aski parte hartu zuten.

Artxiboa

haundi bat ere erosi dutela. Besta ttiki hau bukatu ondoren, gaueko 9etan San Juan sua piztu eta denak saltoka bukatu zuten egun berezi horretan.

Kinto besta

Uztailaren 17an kinto afaria izanen da. Afari honetan, hiru urte hauetan jaiotakoak bildu nahi dira: 1969, 1970 eta 1971.

Pakea karrikan

Bariantea idekiz geroz, karrika nagusiko bizilagunak nahiko lasai bizi omen dira orain, eta ez da gutia-
gorako. Erran behar da afari bat antolatzen ari direla, karrikan bertan egiteko asmoarekin.

85 urtekoen omenaldia

Doneztebeko bestetan, zonaldean 85 urte edo gehiago duten gizon-emakumei omenaldia egin zien Arkupeak elkarteak.

Omenduen artean sunbilda-
r bat ere bazegoen, Joakina Juankorena, hain zuzen ere. Zorionak eta aunitz urtez.

EGA IKASTAROAK DONEZTEBEN



Abuztuan, astelehenetik ortzirralera. Egunean lau orduz.

Informazioa: 451555 telefonoan
Malerrekako Euskaltegia (IKA)



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak.
- ☐ Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- ☐ Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Musika eskolarako lau langile kontratatuko dira

Piano, Akordeoi, txistu eta tronpeta irakasleak behar dira

TXEMA ALDABE


Musika eskolan irakasle lanetan aritzeko lau langile kontratatzeko lan deialdia zabaldu du berriki udalak.

Lanpostu hauetatik bi egun osorakoak izanen dira (piano eta akordeoi irakasleena, hain zuzen ere) eta bertze bi egun erdirako (txistu eta tronpeta irakasleak). Lanpostuak nori eman lehiaketa bitartez erabakiko da eta dagoeneko izena eman daiteke.

40 bat lagun euskara ikasten

Uztailaren 12an Maleerekako euskaltegian hasitako ikastarora 35-40 bat lagun etorri dira. Guztiak, barnetegian egonen dira aste batzuz.

Euskara ikasteko intenzioarekin etorri dira, beraz lagundu beharko.



R. ALBISTUR

San Salvador karrikako bizilagunak kexu bertan gertatzen diren istripuak direla eta

San Salvador karrikako bizilagunak kexu agertu dira bertan duten arazo larriarekin. Izan ere, karrikan barrena igarotzen diren ibilgailu pila eta azken aldi honetan izandako istripuak -martxo-tik honat 11- direla eta beraien kezka agertu dio-

te udalari. Eraberean, Herriko Etxearekin batera, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideen saileko ordezkari batekin bilera egitea eskatu dute, arazo honi ahalik eta irtenbiderik egokiena lehenbaitlehen emateko.

ttipi-flash

❑ **Luis Miguel Apezetxea** Etxenike izanen da hemendik aintzinerako herriko bake epailea.

❑ **Osasunbideako** langileak euskalduntzea eskatzen zuen mozioa onartu zuen udalak. Zinegotzi guztiek aldeko botoa eman zuten, Antonio Artazkozek ezik. Honek, etortzen diren langileak profesional onak izateari eman zion lehentasuna, euskaraz ez jakin arren.

❑ Aurten eginen dituzten emanaldietarako 60.000 pztako **subentzioa** jaso dute dantzariak eta bertze 100.000 pezeta txistulariek.

❑ **Erreka** Kirol elkartearen egoitza Merkaterien karrikako 17. zenbakian udalak zuen pisuan kokatuko da



AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

LABAIENGO OSTATUA

Pentsio osoa

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN



Udako arropa koloretsuak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE


Uztailak 16, ortzirala
arratseko 9etan txupinazoa eta ondoren kalejira. 12tik 3'etara dantzaldia Izotz taldearekin.

Uztailak 17, larunbata
10etan kalejira. 12etan herriko dantzariak. 5'30etan tiro al plato herrikoentzat. Arratsalde eta gauzez dantzaldia Izorradi taldearekin.

Uztailak 18, igandea
10etan kalejira txistulariekin. 12etan meza nagusia. 1etan pilota partidua, pilota eskolak antolatua. 6etan pilota partidua: Leiza eta Urrutia, Otxoteko eta Apeztegiaren kontra. Arratsalde eta gauzez, dantzaldia Izotz taldearekin.

Uztailak 19, astelehena
10etan kalejira. 11etan mus txapelketa. 4etan haur jokoak eta Leitzako zankoak. Arratsalde eta gauzez, dantzaldia Izorradi taldearekin.

Uztailak 20, asteartea
10etan kalejira. 2'30etan herri bazkaria. Arratsalde eta gauzez dantzaldia Izorradi taldearekin eta besten bukaera.



ITURENGO ZURGINDEGIA

TELEFONOA: 45 03 27 - ITUREN

MENDAUR OSTATUA

Besta ederrak pasa
45 05 73 - ITUREN

TXOKO erretegia

- Bazkariak •
- Afariak •
- Gosariak •

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

ITURENGO PISZIFAKTORIA

Besta ederrak pasa
Tfnoa: 45 02 33 - ITUREN



IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO

TIPI-TIAPA ERABILIZ GERO

AVRTIZKO OSTATVA



JATETXEA
* OSTATVA *
TABERNA

☎ 948.450477
ITUREN • NAFARROA

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskararen ordenantzak

Berriki Bortzirietan euskararen udal ordenantzaren behin-behineko onespena egin da. Ordenantza hau aspaldiko ideia da, dagoeneko azaltzen baita duela hiru eta lau urteko Euskara Mankomunitatearen plangintza eta aurrekontuetan.

◆ Bertze herrietan bezala


Nolanahi ere, duela bi urte eman ziren lehendabiziko pausuak eta 1991ko erdialdera eredu ezberdinez baliatuz (Orio, Etxarri, Hernani, Lasarte, Arbizu eta Irungo udal ordenantzak) zirriborro bat egin zen. Bertan, testu honen barruan, aukera ezberdinak ematen ziren ondoren denon artean eztabaidatzeko.

◆ Partehartzeko aukera

Zirriborroa bortz herrietako udaletako talde guztiei eman zitzairen eta euskara batzordeetako partaideen artean eta herriko sektore ezberdinetan banatu zen, denek parte har zezaten eta eztabaidarako gonbitea eginez.

◆ Egindako bidea

Udal ordenantzaren eztabaidak luze jo du eta



1992an zehar hainbat bilerak egin dira. Lehendabizikoak herrietako Euskara Batzordeetan egin ziren. Bertan egindako proposamenak, batzordeetako ordezkariak biltzen dituen Aholkularitza Batzordera eraman ziren eta hemen testu bateratu bat egin zen. Ondoren, proposamena Euskara Mankomunitatera eraman zen.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatean testua

berriz eztabaidatu ondoren, azkenik, 1993ko martxoan behin-behineko onespena egin du, behin-betiko onarpena aldiakari ofizialean argitaratu ondoren etorriko delarik. Beraz, eztabaida luze eta ireki baten ondoren lortu da Bortzirietako euskararen udal ordenantzaren testu hau.

◆ Lan tresna


Aunitzetan erran dugu testuak edo paperak berez ez duela indarrik, eta ad-

ministrazioa euskalduntzeko lana egin beharko dugula. Ordenantza, hain zuzen ere, horretarako da. Lan tresna bat da eta pixkanaka aurrerapausuak ematen lagunduko digu. Egin beharrekoa planifikatu beharko da, egitarau bat prestatu eta jarraipena egin. Baina, azken finean, ordenantza honekin egingen den lana izanen da fruituak emanen dituen.

Berriak

Juan Miguel Almandoz: «Ordenantzak ez ditu erdaldunen eskubideak zanpatzen»

1993ko martxoan Bortzirietako Euskara Mankomunitateak euskararen udal ordenantzaren behin-behineko onarpena egin du. Gai hau pildan dagoenez, eta bere inguruan zurrumurruak eta erranak sortu direnez, Mankomunitatearen lehendakaria den Juan Miguel Almandoz Arantzako alkatearengana jo dugu, ordenantzari eta honek dioenari buruzko argibideak emateko asmoz.



DAVID ANAUT

Zergatik egin du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udal ordenantza?

Ordenantzaren arrazoia ulertzeko orain arteko egoera ikusi behar da. Administrazioan, eta batez ere funtzionamendu idatzian, erdara izan da nagusi orain arte.

Halare, legeak euskaldunoi eskubide batzuk onartzen dizkigu, eta gainera euskara gure herrietako hizkuntza da, hemen betidanik solastu dena. *Horregatik, euskara normalizatzeko administrazio lokalaren funtzionamendua ere euskaldundu behar da.* Hori lortzeko, eta

ikusita erdera izan dela beti nagusi, euskarari laguntza eta lehentasuna eman behar zaio.

Orduan, erdaldunen eskubideak errespetatuko al dira?

Ordenantza honekin ez dira erdaldunen eskubideak zanpatzen. Euskara-

ri lehentasunezko tratamendua eman nahi zaio, baina *erdaldunen batek bere hizkuntzan zerbait galdetzen badu, ordenantzan testualki paratzen duen bezala, bere aukera errespetatua izanen da.*

Berriak

Zer da, labur-labur, ordenantzak erraten duena?

Arestian aipatu dugun helburua kontutan hartuz, hau da, euskara udalaren funtzionamenduan normalizatzea, *bortz herrietako udalek euskaraz funtzionatzeko gaitasuna izan dezaten lortu nahi da*, herrian euskararen presentzia indartzeaz gainera. Horretarako epe bat paratu da, eta baliabide edo errekursoak eta arau batzuk proposatzen dira. Azken finean, euskara bultzatzeko lan egiteko tresna bat bertzerik ez da.

Azken egunotan, elebitasunerako aukera aipatu izan da...

Egia errateko, administrazioan orain arte ez da izan elebi-



bada, horrek ekarriko ditu elebitasunerako aukerak.

Nola jarriko da martxan ordenantza?

Ahaleginak egi-

— Ahaleginak egingen ditugu 3 urteren buruan ordenantzak erraten duena aintzinera eramaten eta aplikatzen •

tasunik, urteetan zehar erdara hutsean funtzionatu baita, batez ere idazterakoan (aktak, errate baterako, gaur egun erdara hutsean egiten dira bortz herrietan), baina ordenantza behar bezala aplikatzen

nen ditugu 3 urteren buruan ordenantzak erraten duena pixkanaka eta progresiboki aintzinera eramaten eta aplikatzen. Horretarako egutegi bat eta aplikaziorako pro-

grama bat ere prestatuko ditugu.

Norbaitek ordenantzaren berri jakin nahi badu, nora jo behar du?

Norbaitek informazio gehiago edo zehatzago nahi baldin badu, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko partaide den edozeini galdetzen ahal dio: bortz herrietako udalako ordezkariak, Euskara Batzordeetako partaideak edota Euskara Zerbitzua (634125 telefonoa - Arantza).

HITZ GUTTITAN

- Ordenantzaren eztabaida bi urtez luzatu da eta Bortzirietako talde politiko guztiei parte hartzeko aukera eman zaie beti
- Bortzirietako udal ordenantzako artikuluguztiak bertze hainbat herrietako ordenantzetatik hartuak dira
- Gisa honetako ordenantzak onartuak daude hainbat herritan: Leitza, Irun, Orio, Lasarte, Legazpia, Donostia, Gernika...
- Bortz herrietan ordenantzari buruzko argibideak emanen dira eta informazio gehiago zabalduko da

Berriak

• Eta zuk, zer uste duzu? •



*Patxi
IÑIGO*
• Apeza •



*Lupe
MENDIGUTXIA*
• Gure Txokoako
lehendakaria •



*Pepi
OLAETXEA*
• Administraria •

► Euskararen normalizazioan zer funtzio du ordenantzak?

► Euskara haur mundura eta sukalde-tara mugatzen badugu, hau da, euskara eremu batzutan bakarrik erabiltzen badugu, gure hizkuntza pobretu egingen da. Horregatik, euskararen erabilera zabaldu egin behar da eremu guztietara, bai administrazioa, bai udaletxetara... ordenantzak, eremu horietako bat errekupe-ratu nahi du, hain zuzen ere.

► Zergatik uste duzu Bortzirietako bertze herritan gertatu ez dena gertatu dela Beran?

► Arrazoi nagusia informazio txarra banatu izana da. Herritarrek ordenantzak zer diren jakin gabe eta irakurri gabe bertsio okerra egin dute. Jendeak zerbait erran aurretik jakin beharko luke ordenantzak legea errespetatuz eginak direla eta Bera zonalde Baskofonoa dela "Ley del Vascuence"ren arabera.

► Ordenantzak balio al dute Beran euskarak aintzinerari segi dezan?

► Bai, noski. Beharrezkoak dira euskararen normalizazioa helburu baldin badugu. Gainera, ordenantzarik gabe ez litzateke efektibidaderik lortuko. Ordenantzen bidez bertze pausu bat ematen dugu normalizazioaren bidean, euskara instituzioen eremura eramanez.



*Koro
ARTIEDA*
• Harakina •



*M^a Jesus
IANTZI*
• Etxekoandrea •



*Kristina
BOAN*
• Euskara
Batzordeko
partaidea •

► Uste duzu jendea konturatzen dela euskararen egoeraz?

► Ordenantzak egokiak dira jendea mentalizatzeko euskara beharrezkoa dela. Horregatik aukera eman behar zaio gure hizkuntzari. Ordenantzen bidez eta pixkanaka euskaldunak diren herri guztiak lan eginez gure hizkuntza salbatuko dugu. Gainera, ordenantzak ez du Beran euskara hutsez funtzionatu behar dela erraten, erdaldunak ere errespetatzen ditu, bi hizkuntzei tokia utziz.

► Zerbaitetarako balio ote dute euskararen aldeko legeak?

► "Ley del Vascuence" delakoak ez du lagundu euskarak aintzinerari egin dezan, eta horregatik, beharrezkoa da udal ordenantzen aplikazioa. Euskararen legeak ez dira bakarrik beharrezkoak, derrigorrezkoak ere badira. Bazen garaia euskaldunon eskubideak errespetatzeko. Inor ez da konturatu orain arte erdarak izan duela lehentasuna eta euskaldunok zapalduak egon garenik.

► Ze bide kurritu da ordentzak egiteko?

► Irun, Leitza eta Euskal Herriko bertze herritan bezalaxe, Beran ere euskararen normalizazioa lortzeko euskararen ordenantzak aplikatzea erabaki zen. Bi urtetako lana burutu da ordenantzak erabakitzeko, eta beti ere kontutan hartu da hemengo egoera soziolinguistikoa. Zergatik ez onartu euskararen ordenantzak Beran erdaldunagoak diren herrietan onartu badira?

Uztailak 23, ortzirala

Arratsaldeko **4etan** haur joak. **8etan**, altxaferoak eta ezkil jotzea. Ondoren herriko trikitilariak. Gaueko **12'30etatik** goizaldera dantzaldia Gaubela eta Vicenterekin.

Uztailak 24, larunbata

9etan, diana. **10etan**, herrikoendako plater tiraketa. **6etan** pilota partidua eta bertsolariak. **12'30etatik** goizaldera dantzaldia Gaubela eta Vicenterekin.

Uztailak 25, igandea

Santiago eguna

9etan diana. **11etan** meza nagusia. **12etan**, Lesakako akordeolari bandaren emanaldia. **5etan**, herriko XXIX. mus txapelketa eta berendua. Arratsaldez eta gauez, Gaubela taldearekin dantzaldia.

Uztailak 26, astelehena

9etan diana. **10etan** balkoi apainduen lehiaketa. **12etan** toka txapelketa. Arratsaldeko **2etan** zikiro-jatea. Arratsaldez eta gauez, Ramon Mitxelena-rekin dantzaldia.



1970ean, ezkondu eta solteroan arteko sokatira norgehiagoka. Ezkerretik eskuinera Martin Jose, Eulogio, Miguel, Juan, Severiano, Tiburcio, Manuel, Jose M^a eta Domingo. Animatzaile lanetan Julian.



Zikiro erretzaileak
1982an: Faustino,
Claudio, Paulino eta
Javiertxo

(Argazkiak Jose Ignacio
Olazarrek bilduak)



Martin - Ibarra
BURDIN-LAN ARTISTIKOA

450235 - ELGORRIAGA

ELGORRIAGAKO
FONDA

Espezialitatea arrainetan

TELEFONOA: 45 00 03 - ELGORRIAGA

ETXEBERRIA
ZURGINDEGIA

Zurgindegi orokorra

© 450310 • ELGORRIAGA

MALERREKA

Arkupeak elkarteak Doneztebeko egoitza inauguratu zuen

Mila jubilatutako inguru izan ziren eta 85 urtetik goitikoak omendu ziren

TXEMA ALDABE

Inguru honetako 2.300 jubilatutako biltzen duen Arkupeak elkarteak Doneztebeko udaletxe zaharreko bigarren pisuan dagoen egoitza berria estrenatu zuen ekainaren 30ean. Ekitaldi honekin batera, 85 urtetik goitiko hirutanogaitabi aitona-amonak omenaldia eta elkartearen zazpigarren urteurrena ere ospatu ziren. Herri guztietako delegatuak ere omenalditxo bat eskeini zuten urteotan egindako lana eskertuz. Aipagarria da, Arkupeak elkartearen sartu berriak direla Goizueta, Arano eta Irungo bazkideak, hedapean 44 herrietara zabaldutako.

Inaugurazioan, Arkupeak, CAN eta zonaldeko udal ordezkariak gain, Juan Cruz Alli, Nafarroako gobernuko lehendakaria, Ricardo de Leon, Ongizate saileko arduraduna eta Jose Maria Zirarda apezpikua izan ziren, bertzeak bertze.


Inaugurazioa egin ondoren, jubilatutako Bordatxora joan ziren, meza aditzera. Mila lagunek eskolako frontoian ederki bazkaldu ondoren, Nafarroako unibertsitateko tuna aditzeko aukera izan zuten.

Arratsaldean Bearzana frontoian jarraitu zuen bestak, joteroak, Estitxu



Laugarren adinean -85 urtetik goiti- dauden hirutanogaitabi lagunei omenaldia eskeini zitzaizkien inaugurazioaren tarte batean

TXEMA



Arkupeak elkarteak 2.300 bazkide ditu gaur egun

TXEMA

Arozena eta Amaia Telletxea bertsolariak, Barañaingo dantza taldea, Iñaki Perurena harrijasotzailea eta Mikel Mindegia eta

Donato Larretxea aizkolariak.

Egoitza berria egiteko aurrekontua 21 milioi ingurukoa izan da, hauetatik

11 Nafarroako gobernuak paratuak.

Inaugurazio besta antolatzeak berriz, 2.800.000 pezetako gastua sortu du. Hau ordaintzen laguntzeko, Juan Cruz Allik CAN-en izenean milioi bateko txekia eman zuen eta Doneztebeko udalak 600.000 pezetakoa.

Bertzalde, Allik adierazi zuenez, Donezteben pisu tutelatutako laister egiteko asmoa omen dago, dagoeneko proiektua martxan dagoelarik. Proiektua eta aurrekontua jakin ondoren lanak hasteko beharrezko akordioak hartuko omen dira.

Arkupeak elkarteak sariak eta bidaiak ere banatu zituen

Arkupeak elkarteak antolatutako udako zozketa bereziaren sariak banatu ziren uztailaren 3an. Lehen saria, milioi erdiko txekoa, Urdazubiko Rosario Etxeberriari tokatu zitzaion. Bigarren saria (Portugal, Andalucia eta Ceutarako bidaiak) Berako-Casimira Zelaletari egokitu zaio eta hirugarrena (Lourdesera bidaiak) Iruritako Julita Perezari.

Argazkiak: ZALDUA



Urdazubiko Rosario Etxeberria 500.000 pezetako txekoa jasotzen Felipe Ganboa Arkupeak elkarteko lehendakariaren eskutik. Bere ondoan, Asuncion Olagarai, Urdazubiko delegatua eta Rosarioren senarra



Casimira Zelaletaren ilobak jaso zuen bigarren saria. Ezkerraldean, Lino Telletxea, Arkupeak elkarteko Berako delegatua



Julita Perez, hirugarren saria jasoz. Bere ondoan, Jose Oronoz Iruritako delegatua



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43
DONEZTEBE

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa
tratamendu naturalekin

...

Bizkarrezurreko arazoak

...

Zelulitisa eta loditasunaren
kontrako tratamendua

...



Jean Paul Bouchet
Doktorea

Inzakardi 3 - 1. A eta B • ☎ 45 16 42 • DONEZTEBE



OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793

GOIZUETA

Administrazioa euskalduntzea eskatu du Udalak

Duela 7 urte Nafarroako Parlamentuak onartutakoa betetzea besterik ez da eskatzen

ESTEBAN AROZENA

Aurrerantzean gure herrian lan egiteko kontratatuko diren langileek, euskararen ezagupena nahitana-hiezkoa izatea eskatu dio udalak Nafarroako Gobernuari.

Kontutan izan behar da, duela 7 urte Parlamentuak onartutakoa betetzea besterik ez duela eskatzen mozioak, "Ley del Vascuence" delakoak garbi adierazten baitu "herritar guztiak euskara zein gaztelera erabil ditzaketela administrazio publikoekiko harremanetan, eta eskubidea dutela aukeratzeko duten hizkuntzan atentituak izateko". Mozioa aurkeztu zuen Euskara



Hondarribiatik abiatu eta Gironako Llança herrira ailegatu bitarte 28 egun eman dituzte Pirinioetako ibilbidea egiten Manolo eta Andonik.

Zerbitzuaren ustez, egoerarik kezkagarriena Osasunbidea arloan dago, gure inguruko herrietako mediku eta erizain gehienak euskaraz ez dakitelako.

Pirinioetako ibilbidea

Manolo Aizkorbe eta Andoni Zugarramurdi gazteek 28 egun iraun duen oi-

nezko ibilaldia burutu berria dute, hain zuzen Pirinioetako ibilbidea GR-11az ezagutzen dena. Hondarribian eman zioten hasiera bidaiari eta hainbat paraje zoragarri zeharkatutakoan Gironako Llança herrian bukatu zuten. Ez nahi orduko seguraski!

Pello Añorga

Azken *ttipi-ttapa* n aipatu baguen ere, zehaztu beharra dago Pello Añorga ipuin kontalari ezaguna datorren larunbatean izango dugula gure herrian. Arratsaldeko 6etatik aurrera Dantzarien lokalean (Escola Zaharrean) eskeiniko du 14 urte arteko haurrei zuzendutako emanaldia.

ARESO

Festa berezia ospatu genuen ekainaren 28an

Berezia berriro berreskuratu delako eta oso ongi antolaturik gainera

JUANA M^a SAIZAR

Goizetik hasi zen festa meza motz eta eguraldi onarekin. Pixkanaka jendea plazara inguratu zen 5 artisauen lanak ikustera.

Eskolako umeei eskeinitako antzerkia, benetan dotore eta landua. Baina inork espero ez zuena udalletxean zegoen argazki zaharren erakusketa zen. Benetako arrakasta izan zuen eta baziren ordu terdi eta bi ordu ikusten pasa zituenak.

Beste hiru erakusketak ere ikusgarriak ziren.

Herri bazkarian 120ren bat lagun elkartu ziren. Girona alaitzeko dantzariak eta bertsolariak izan genituen eta sokatira saioa Areso Uitziren kontra. Lau tiraldiren ondoren Aresokoek irabazi zuten. Hamabots egunetan fin-fin prestatuak ziren gure mutilak. Gero, farra egiteko modura, desafioa izan zuten Aresoko neskek Leitzarren kontra. Onartu, jokatu eta



Arrakasta ikusirik heldu den urtean berriro antolatu beharko litzateke.

irabazi. Dantzaldia eta buruhaundiekin bukatu zen

eguna. Eskerrak antolatzaileei eta laguntzaile guzietan.

Udal-irratia badu izenik: Karrape Irratia

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako irratia euskal-dunak baditu izena eta logotipoa. Lehiaketara 13 logotipo aurkeztu ziren eta Koldo Fagoagarena suertatu zen irabazle.

Gas sarea jartzeko hitzarmena

Udalak eta 'Repsol Butano S.A.'k sinatu dute gas sarea jartzeko hitzarmena. Repsolek sarearen eraikuntzak dakarren gastua bere gain hartuko du eta udalak gas tankeen obra zibila ordainduko du. Lanak 'Construcciones Azpiroz y Saralegui S.L.'ri zuzenean esleitu edo adjudikatu dizkionte 11 milioi pezetatan. Gas-hartze bakoitzengatik 15.000 pza. ordaindu beharko dugu eta 340 gas-hartzaile izanen dela uste da.

Hirurteko Plangintza

Hirurteko Plangintzan

Guzira 13 logotipo aurkeztu ziren lehiaketara eta Koldo Fagoagarena suertatu zen aukeratua.



Leitzari dagokionez, Diputazioak bakarrik zaborren bilketari buruzko 10 milioi-tako proiektua onartu du. Ur hornidura, saneamendua eta kaleen zoladuraren bukatzea ez dituzte sartu. Udalak honen aurkako alegazioa aurkeztuko du.

Argazki Rally-aren irabazlea

Argazki Rally-aren irabazleak Javier Aranburu eta Ixiar Fagoaga izan dira. Hautaketa argazki ibilaldian parte hartu genuenok egin genuen. Erakusketan jende asko izandu zen.

ttipi-flash

- ☐ Eskolako euskal adarreko 8. mailako ikasleek, bidai bat egiteko dirua ateratzeko egindako kamiseta eta tonbolako oparietatik sobratutakoak, Bosniara bidali dituzte.
- ☐ Pestetako programaren azalerako lehiaketa Angel Mindegiak irabazi du. Kasu honetan hautaketa erakusketa ikustera joan zen jendeak egina da.
- ☐ Sutarako egurra nahi duen guziak izena eman beharko du Udal Idazkari-tzan uztailaren 31ko eguerdiko ordu bata baino lehenago. Dena dela, egurraren truke, auzolanean egun bat egin behar.
- ☐ Jose M^a Sagastibeltza orainarte eskolako atezaina izan dena aurten jubilatuta da, udalarentzat 33 urte lan egin ondoren. Hemen-dik aurrera izanen du nahiko denbora karubiak eta txondorrek egiteko edo bere harrien bilduma izugarria haunditzeko.



- ✕ Eraiketakarako materialak
- ✕ Zeramikak eta bainuak
- ✕ PVCzko leihoak

Aurrekontuak egiten dira
Tfnoa: 504410 - LEKUNBERRI

MANGADO Y OCHOAren Banatzailea

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO
TTIPI-TTAPA ERABILIZ GERO

BAZTAN

Baztandarren Biltzarraren 30. edizioa, igande honetan

Xorroxin irratia omenaldia eta orga zamaren zozketa, aurtengo berrikuntzak

ELIZONDO

Igande honetan, uztailak 18, burutuko da Elizondoko Baztandarren Biltzarraren 30. edizioa.

Aurtengoan, zenbait berrikuntza izanendituekitaldi honek, bertzeak bertze Xorroxin irratia –zuzenean emanen du orga apainduen desfilea– omenduz eta orga zama bat zozketatuz. Igandean, artisauen lan erakusketa eta orga apainduen desfileaz gain, 10'30etan Mallerreka eta Baztango taldeen arteko laxoa partidua jokatuko da. Mutildantzen ondoren, ohizko herri bazkaria ospatuko da, kantari, bertsolari eta txarangekin.

Arratsean dantzaldia izanen da "Laiotz" taldearekin eta ondoren orga zamaren zozketa.

Egun nagusia igandea izanen bada ere, ortziralean "Baztandarren Biltzarra orain arte" erakusketa zabalduko da Arizkunenean. Larunbat goizean txarangak, gaiteroak eta bertze musikariak ibiliko dira karrikaz karrika eta gauean, bertso saioa pilotalekuan eta gaupasa izanen dira.

Jexux Bailon
elizondorren
kartelak
iragarriko du
aurtengo
Baztandarren
Biltzarraren 30.
edizioa



W ttipi-flash

□ **Javier Ziga** pintoreari eskeinitako plaza Santia-go egunean inauguratuko da. Jaime Urrutia karrika, Virgilioren maldaxka eta Antxitoneako zubira gateko tarte horretan plaka bat paratuko da pintorearen omenez.

□ **Haurrendako** Udako III. Plastika tailerra emanen da hilabete hauetan Arizkunenean. Udalak 164 mila pazetako aurrekontua onartu du horretarako.

Udalak ia 4 milioi zor dizkio Iturri Ederrari

Komenioa sinatu arte ez du zorra kitatuko

Baztango Udalak Elizondoko Balleko Etxearen urte honen lehen hiru hilabetetako uraren kontua ordainduko dio "Iturri Ederra" elkarteari, Gobernu Batzordean hartutako erabakiaren arabera.

Honela, itxura batean, 1974az geroztik –19 urtez– zegoen eztabaida bati bukaera ematen zaio. Baztango Udalak ia 4 milioi zor dizkio Iturri Ederra Elkarteari, baina halere, bi



erakundeen arteko komenioa sinatu arte Baztango

Udalak ez omen ditu zorrak guztiz kitatuko.

*** SANTIAGO BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU ***

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

MERKEALDIAK ARROPA ETA TELETAN

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de
REPSOL
AUTANO

**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

Ameriketarik bisitan etorriak Erratzura

Guzira hogeitik gora egon dira besta eta ezteietan

JOSEBA IGARABIDE

Garai batean ameriketa-
ra gan ziren hogeitik gora
etorri dira bisita egitera eta
bertze batzuk Ostaturuko Joxe
Ballarenaren ezteietara.
Maxkoneko familiatik 14,
Etxegainekotik bi, Larroi-
nekotik lau, Ierron familia-
tik bertze lau... Gaur egun
gehienak ameriketan anto-
latua dute beren bizimodua
eta seme-alabekin etorri dira.

Zerrien ITG Doneztebera ereman dute

Oronozen zerrien ITGk
zuen bulegoa hemendik
aintzinerat Doneztebeko
Oteiza auzoan ITGk hartu
duen etxerat eraman dute..
Gogoratu baita, zerrama eta



Karmele

Udalak turismoaren aldeko apostua

Martin Garde, Patxi
Oizartabal eta Pedro Pe-
rez Urizek prentsaurre-
koa eskeini zuten Mer-
kaituzelaiko kanpalekua-
ri buruzko udal ekimena

azaltzeko. Asmoaren ara-
bera "lehen kategoriako
400 plazako camping-a
udalari pezetan bat kosta
gabeeraikitzea" litzateke,
bisitariak ekartzeko.

zerrikumeak dituztenei ITG-
k gogoratu nahi diela zerriei

txertoa emateko epea zaba-
laik dagoela.

W ttipi-flash

☐ INEM eta udalaren arte-
ko akordioaren bitartez,
apirilaren 29an sinatutako
komenio dela eta, Baz-
tango udalari 7.590.000
emanen zaio Erratzuko
frontoi inguruko eremua
apaintzeko.

☐ Elizondoko Merkatu
Plazan gero eta jende
gehiagok jartzen du
azkenaldiotan salmenta
postuak (arropa, frutak,
berdurak, barazki plan-
tak, gasnak...) Garai ba-
tean bezala egotera aile-
gatuko ote da?


☐ Erratzuko zikiro jatera
250 herritar bildu ziren.
Gogoak egiten du besta.

BAZTANDARREN BILTZARRA 93 • EUSKARAK BATZEN GAITU



KIWI BAZTAN, S. A.

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENKO SALMENTA



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea

31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

M^{te} Dolores Mirana TOPOGRAFIA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak

Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

Jar zaitez esku onetan!

Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago.
Dermosteticista batez gidatua eta Mediku Espezialista batez
kontrolatua, zure arazoak moldatzeko
tratamendu pertsonalizatu bati esker.
Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia
eta ilea kentzeko sistemak (elektroiak, argizari beroa eta
argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.



Beatriz

Lurrindenda eta Apaindegia
☎ 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

SARA

Goxotegi berri baten inauguratzea ginuen uztailaren 3an

Udarako «Martinka» jatetxea ere ideki da Ur Txokoa Bentan

MIXEL ETA JACQUELINE

Eliza Aldea etxean (Goienetxe dendaren gibelko aldean) goxotegi eta pasteleri bat ideki da: Olamendy izendatu dute eta hunen sustegatzaileak Peio Olano saratarra eta Jean Michel Mendy senperetarra dira. Hau da preziski kudeatzeaz arduratuko dena, Nathalie bere andrearekin batera. Gure aldetik goresmen guziak eskaintzen diozkagu bikote gazte huni eta oraindantik erran dezakegu hor egiten diren goxoki, bixkotx eta guziak ezin hobeak direla. Gomitatzen zaituztegu itzuli baten egiterat goxotegi huntarat eta zuhaurek ikusiko



duzue guk errana ez ote den egia...

Udarako jatetxe berria

Ildo beretik segituz, uz-

tailaren 9an Ur Txokoa Bentan jatetxe bat ideki zen udarako. Proiektu hau Martine Goietxe eta Kattin Bergara deitu bi neskatxek

landu dute eta "Martinka" izanen da jatetxearen izena. Sasoin on bat egi dezatela.

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Gurenduain

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI



ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

5.500 harpidedun
18.500 irakurle*

* Nafarroako Gobernuak egindako Audientzia Estudioaren datuak

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA




* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

Arkupeak, Gaineakoetxeko Miguel omendu zuen Donezteben


Errifaren sari nagusia, 500.000 pezeta, 'Ola'ko Miguel eta Rosariori tokatu zaie

ALIZIA OLAIZOLA

Ekainaren 30ean Jubila-tuen eguna izan zen Donezteben. Arkupeak 85 urtetik goitikoak omendu zituen, horien artean, Gaineakoetxeko Miguel Barrenetxe. Bertze bida ere baziren Urdazubin, Anduregiko Miguel Iturburua eta Motzane-ko Mikaela Iturburua. Hauek ez ziren omenduak izan 'Arkupeak' ez zuelakoz jakin hauen datuak. Aipatu baita Olabideko Xapaloin-bordako Agustin Iturbide eta Marimotzenbordako Estanislao Arraztoa omenduak izan zirela. Asuncion Olagarai da Arkupeak Urdazubin duen delegatua.



Miguel Barrenetxe Meaka 1908ko ekainaren 13an sortu zen.



Eskolako gaztetxoek ikasturtearen bukaeran Donostian egon ziren hiru egunez

Sari nagusia herrirat Errifaren sari nagusia, 500.000 pezeta txekia, Ola etxeko Miguel eta Rosariori tokatu zaie. Errifak Asuncionez zuten saltzeko. Zorionak mi-

guel eta Rosariori.

Bidaia

Izaskun Mihurak Santio Bidea oinez egin du ekainaren 15ean abiatuz Orreagatik eta uztailaren 11an ailegatuz Santiagora. Silvia

Olaizola, 12 urteko neskatxa, aurrean ere koloniatan Isaban izana da 10 egunez.

□ **Urteko** bigarren haurra sortu da ekainaren 30ean, Xabier Erdozain Ariztia.

ZUGARRAMURDI

'Kupela' ostatuko mus txapelketa bukatu berri da

Sari ederrak eta jokalaririk aunitz

KORO eta MARGARI

Gan den martxoan hasi zen 'Kupela' ostatuko mus txapelketa uztailaren 3an bukatu da. Sariak ederrak ziren eta eraberean, parte hartzaileak ere aunitz. Hona zein diren hiru bikote irabazleak: Gonzalo-Jexux (50.000 pza.); Mikel-Alfredo (25.000 pza.) eta Juan Miguel-Manuel (10.000 pza.).



Partidak bukatu ondotik ostatuak zardin-jatea eskeini zuen han zeuden guzientzako.

Afaria

Iaz bezala aurrean ere afaria egingen da gaupasan lanean aritu zirenekin. Afari hau uztailaren 23an 'Armua' jatetxean izanen da eta etxez etxe pastuko dire abisatzen eta izenak hartzen.

EZKONTZAK

Joset Latasa eta Alice Lamothe, Urruña eta Sarakoa, ekainaren 25ean.

Jean Michel Tolen eta Madeleine Loe, Asnieres eta Parisekoa, uztailaren 3an.

Meltxor Altzugarai eta Nerea Irazoki Taberna, Donamarieta Igantzakoa, ekainaren 2an.

Iñaki Gonzalez eta Lurdes Madariaga, Lasarte eta Arantzakoa, ekainaren 26an.

Antonio Aguilar eta Ana M^a Lazkanotegi Matxiarena, Donostia eta Berakoa, ekainaren 26an.

Jose Antonio Elizondo Sanchez eta Lourdes Barberena Mugiro, Doneztebe-Iraizoz, uztailaren 4ean.

Fco. Sanchez Ibañez eta M^a Teresa Etxegia Loiarde, Lesaka eta Goizuetakoa, ekainaren 12an.

Julian Goñi Mitxelena eta M^a Josefa Iribarren Garbalena, Elizondo eta Lekaroz, ekainaren 19an.

Fco. J. Apezetxea Apezetxea eta Maite Iribarren Iribarren, Goizueta-Doneztebe, ekainaren 19an.

JAIO TZAK

Unai Urroz Gelbenzu, Oitzekoa, maiatzaren 26an.

Iratxe Espartza Txueka, Elgorriaga, ekainaren 20an.

Xabier Erdozain Ariztia, Urdazubikoa, ekainaren 3an.

Leire Izquierdo Agirre, Berakoa, ekainaren 20an.

Imanol Oiartzabal Dosantos, Berakoa, ekainaren 22an.

Iñaki Yanci Maritorea, Anizkoa, ekainaren 18an.

Cristina Nerayo Amaya, Elizondokoa, ekainaren 18an.

Ana Carballude Iturburua, Elizondokoa, ekainaren 25ean.

HERIOTZAK

Miguel F. Etxeberria Sanzberro, Etxalarren, uztailaren 6an, 79 urte.

Ramona Mazizior Matxikote, Arantzakoa, uztailaren 3an, 83 urte.

Juan Pedro Erasun Elizalde, Sal-diaskoa, ekainaren 28an, 58 urte.

Tomas Gonzalez Pinto, Leitzakoa, ekainaren 27an.

Jose Igancio Goizueta Gaztañaga, Goizuetan, ekainaren 17an, 62 urte.

Josefa Mtnez. Chueca, Elizondon, ekainaren 29an, 85 urte.

Juana Grazenea Telletxea, Elizondon, uztailaren 1ean, 93 urte.

Jesusa Mitxelena Jorajuria, Sunbillan, uztailaren 2an, 75 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial

LUIS
MARIANO
Irun

Berako 'Txipi' taldea izan zen garaile Bortzirietako futbito txapelketan

Finalean 9-3 irabazi zion Lesakako 'Los Taurinos' taldeari



ATOR

Berako Txipi taldea izan da Beti Gazte elkarteak antolatzen duen Bortzirietako futbito txapelketaren garai-

lea, finalean Lesakako Los Taurinos taldeari 9-3 irabazi ondoren. Beratarrek ez zuten arazo haundirik izan

finalean gailentzeko. Los Taurinos-ekoen bigarren finala zuten baina oraingoan ere ez zuten suerterik izan.

HERRI KIROLAK

Idazkari lanpostu deialdia zabaldu du federazioak

Herri Kirol federazioak urte betez idazkari lanpostua betetzeko deialdia zabaldu du. Presentatzen direnak guttienez Administrazio titulua, euskararen eza-gupena eta norberaren ibilgailua izan beharko dute. Herri kirolari buruzko eza-gupenak ere kontutan hartuko dira. Interesatuak curriculum eta hiru urtetarako gestio proiektu bat aurkeztu beharko dituzte uztailaren 22a baino lehen.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 450900ra.



Bidasoa Kultur Zerbitzuak

Kirol, Kultur eta Turismo Zerbitzuak

☐ BIDAI AGENTZIA ➡ ➡ ➡ ➡ ➡ ➡

Viajes Ecuador-eko sukurtsala gara. Ezkondu berriendako, ikastetxetako, jubilatuetako eta guztiendako Bidai alternatiboak

☐ KIROL eta KULTUR AKTIBITATEAK ➡ ➡ ➡ ➡

Piraguismo, parapente, Arku etabarren ikastaroak, baita ere alkilerak Kirol eta festibal haundien antolaketak

☐ ARTESANIA SALMENTA ➡ ➡ ➡ ➡ ➡ ➡

Ezkontzetako, urtebetetzeko... opari bereziak

☐ KIROL eta KULTUR KOORDINAKETA

☐ KIROL eta KULTUR INSTALAZIOEN GESTIOA

☐ PROIEKTU BERRIEN ASESORAMENDUA ➡ ➡ ➡ ➡

Buruan duzun proiektuaren estudioa

☐ GIDA TURISTIKO ZERBITZUAK ➡ ➡ ➡ ➡

Bertako pertsonen gidaritzaean txoko guztiak ezagutzeko aukera ederra

BKZ, S.L. • Santiago 22 • Tfnoa: 580490 • Fax 580882 • Elizondo (BAZTAN)

Miguel Lekuona, Goizuetako alkatea:

«Diru banaketaren arabera, lehen eta bigarren mailako herriak daude Nafarroan»

Miguel Lekuona
Goizuetako alkatea
da azken bi urteotan,
hauteskundeetan
Herri Batasunaren
zerrendaburu gisa
agertu ondoren.
Aurretik, beste zortzi
urte eman zituen
zinegotzi lanean. 37
urteko goizuetarra,
ezkondua eta 2 seme-
alaben aita,
Donostian bizi da,
Osakidetzan burutzen
baitu bere lana.
Halere, gogo haundiz
egiten omen du
Donostiatik
Goizuetarako joan-
etorria, batzutan
herriko arazoetatik
"deskonektatzeko"
arriskua ikusi arren.



«Nafarroako
Gobernuaren
Hirurteko
plangintzatik ez
dugu sosik
jasoko eta
beste hiru urtez
inbertsioak
egiteko dirurik
gabe gelditu
gara.
Nafarroako
Gobernuaren
jarrera hau
gogor salatu
behar da»

titi-ttapa. Nafarroako
Gobernuak Hirurteko plan-
gintzatik kanpo utzi du
Goizuetan...

Lekuona. Plan Trienaleko
helbururik inportantenak,
besteen artean bi ziren: ba-
serritako pistak moldatzea
eta udaletxea konpontzea,
nahiko egoera txarrean
daudelakoz. Izugarrizko
sospresa izan da sosik gabe
gelditu garela. Errekurtsoa

egiteko asmotan gaude bai-
na zaila izango da aurrera
ateratzea. Nafarroako Go-
bernua gogor salatu behar
da, legislatura honetan
hainbat herri inbertsioak
egiteko dirurik gabe gelditu
baitira. Badirudi Nafarroan
bi klasetako herriak daude-
la: Goizuetan bezalako he-
rriak, lanenerdiak egin gabe,
Herriko Etxea erdi erorian,
depuradorarik ez, kolekto-

rerik ez, baserritako pistak
moldatu gabe... Beste zen-
bait herritan berriz, iturriak
ere urrezkoak dirudite. Hori
salatzekoa da eta beste hiru
urtetan deusez egin izatea
nahiko gogorra da. Legeak
dioenaren arabera eginez
gero bakarrik udaletxea
moldatzea 40 milioi kostako
litzateke. Ea nondik aterat-
zen duen Goizuetan bezalako
herri batek diru hori. Base-

rrietarako hogeitagehiago
kilometro moldatzeko ere
231 milioi aurreikusiak ge-
nituen. Orain baserrietatik
kexuka etorriko dira baina
guk partxea jarri besterik
ezin izango dugu egin.

titi-ttapa. Etxebizitza so-
zialak egiteko asmorik ba al
dago?

Lekuona. Etxebizitza so-
zialen prozesua nahiko lu-
zea eta gogorra izan da, ba-

tez ere terrenoen jabeekin akordio batera iristea. Eskritura guztiak udalaren izenera pasatu dira jabe guztiekin akordioa lortu ondoren. Guztira 16 bizitza egingo dira, 12 eliza eta eskola arteko baratzetan eta 4 lehengo kuartelean.

ttipi-ttapa. *Herriko diru iturri nagusia izanik, ze lan egin dira Goizuetako mendietan?*

Lekuona. Mendien inguruan nahiko arazo izan dira. Pinu hektarea asko daude eta lan guztiak ezin dira egin, nahiz eta bi langile fijo izan mendietarako. Lehenengo entresakak ordu pila bat ematen du. Zenbait bileren ondoren, lehenengo entresaka markatu gabe egitea lortu genuen, horrela gure langileak beste lanetan aritzeko. Azken bi urteotan mugimendu haundia eman zaio mendiari: estereo pila bat atera, iaz 12 Hektarea plantazio, eta orain tratuan gaude Diputazioak berak plantazioak egiteko. Goizuetako diru sarrerarik inportanteena mendia da, beste industriarik ez baitago. 20-25 milioi sartzen dira urtero eta zenbait hilabete-tan 20 lagunetik gora aritzen dira lanean mendian.

ttipi-ttapa. *ETBko errepetidorearekin ere nahiko lan izan dira...*

Lekuona. Errepetidorea ETBK berak jartzea lortu da, horretan uste baino denbora gehiago eman badugu ere. Guk instalazioa eta kaseta jarriko ditugu eta ETBK egingo du mantenimendua.



«Goizuetako diru sarrerarik inportanteena mendia da, beste industriarik ez baitago. 20-25 milioi sartzen dira urtero lanbide hortatik.»



«Jabe guztiekin akordio batera iritsi ondoren 16 etxebizitza sozial egingo dira laister»

ttipi-ttapa. *Mediku erdaldunaren arazoak konpontzea lortu al da?*

Lekuona. Guk lortu dugu medikua euskalduna izatea baina arazoa ez da hor bukatzen, zona guzian euskaldunak behar baitira. Gu prest gaude horren alde bileretan lan egiten segitzeko.

ttipi-ttapa. *Epe laburrean, ze aldaketa egon daitezke Goizuetan?*

Lekuona. TVEko errepetidora doan bidea asfaltatzea aurtien lortuko da. Goizuetako karreterari ere zenbait kurba kenduko zaizkio, datorren urtean seguraski. Azken 15-16 urtetan ez da sosikan gastatu karretera horretan. Bestalde, uztailan, 60 urtetik gorako zaharren

artean enkuesta bat eginen dugu. Zer arazo dituzten, beharrak, etxebizitza konpartituetara joango lirateken... Beraientzat lokal bat egiteko asmoa ere badago.

ttipi-ttapa. *Nola bideratu daitezke Goizuetako nondik norakoak Donostian biziz?*

Lekuona. Alkatetza eramatea inon ez da errexia izaten eta nere kasuan oraindik zailxiagoa da. Goizuetan gertatzen diren gauza asko handik bi egunetara enteratzen naiz. Bidai eta kilometro gehiago egin behar da baina gustora eta gogoekin arituz gero ez da horren besteko lana.

Testua: Aitor AROZENA
Argazkiak: Antton ERKIZIA

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

Lana

• **Frantzes** klaseak. ☎ 450853 / 637164.

• **Beran** solfeo eta akordeoi klaseak emanen nituzke lau urtetik goitikoentzat. ☎ 630146 Kristina (eguerditan).

• **Abuztuan** mekano-grafia eta ordenagailu klaseak. ☎ 580155.

• **Euskarazko** klase partikularrak emanen nituzke, maila guztiak, goizez eta arratsalde. ☎ 630108.

• **Magisteritza** ikasleak klase partikularrak emanen lituzke Lesakan. Euskaraz edo erdaraz. ☎ 637095.

• **Kamioiak** gidatzeko edo bertze edozein lanetarako gazte ezkondua eskeintzen da. Urtebeteko esperientzia dut. ☎ 627623.

• **Neska euskalduna** udako hilabetetan lan egiteko prest dago. ☎ 630356.

• **Uztailaren** 15etik aintzinerako OHO, BUP eta REM klaseak emanen nituzke. ☎ 637839 (Izaskun)

Salerosketak

• **Esne tanke** bat Happi markakoa eta 320 litrokoa salgai. Gutxi erabilia ☎ 599178 Urdazubi.

• **Frigorifiko** ttikia eta labadora bat salgai. Egoera onean daude eta merke emanen nituzke. ☎ 631338 (eguerditan eta arratsetan).

• **Ariston** markako **gas sukaldea**, labea eta lau su su dituen. Ia-ia berria dago eta ez du portabonbonarik. 18.000 pezetan salgai. ☎ 630377.

• **Fagor** markako **sukaldea**, labea eta lau su elektriko, portabonbonarik gabe salgai 15.000 pezetan. ☎ 630377.

• **Bi artzai zakurkume** salgai, hiru hilabetekoak. ☎ 630082.

• **Pointer** arrazako txakurkumeak salgai. Egiakozkoak eta politak. ☎ 610761.

• **Honda 250** motoa salgai. Bortz urte ditu baino gutxi erabilia. Prezio merkean. ☎ 452027.

• **Sukaldeko** tresnak eta

elekttrizitate eta olioeko kafeakzioak salgai, oso merke. ☎ 592157 (eguerditan).

• **Trikitixa** bat erosiko nuke Zero Sette markakoa. ☎ 580939.

• **Peluleriko** mueble, akzesorio eta ur beroa lortzeko termo elektriko bat salgai. Prezio interesgarria. ☎ 610910.

• **Honda Trail XL 600** RM, NA-AC matrikula, kasko eta botakin 275.000 pztan salgai. ☎ 630922 (Javier).

Etxebizitzak

• **Beran** 70 m²ko lokal bat salgai. Bulegoa, denda edo antzeko negoziotarako prest dago. ☎ 630970.

Denetarik

• **Zuhaitzak** aldatzeko barruti, belar soro edo ireztor lekua erosiko nuke Leitzan, Areson, Ezkurran, Uitzin edo Gorritin, kotxearekin bertaraino iristeko moduko lekuan. Milioi bat pezeta arte ordainduko nuke. ☎ 510444 (Patxi).

• **Bi pertsona** behar dira pisu bat osatzeko Iruñeako Alde Zaharrean, abuztutik aurrera. ☎ 171232 (Amaia, goizetan).

Harremanak

• **Eratsungo** Ana eta M^a Angeleseri: zuen begiak gaituzte erotzen eta zuen ezpainak txoratzen, zuen ile horrek eguzkia baino diztiratsua goa da; itsasoko olatuak dirudite. Bi muxu zuen ezpain goxo horietan.

• **Doneztebeko** M^a Carmen Vertizeri zorionik be-roenak Narbartekeko lagun baten partez.

• **Zubietako** Txomin, Joanes eta Asierreri: Alba, Josune eta Estitxuren partetik musu asko eta horren guapoak segi dezazula. Muaaa! "Besito caliente".

• **Berako** Iratxe Zelaie-tari. Zorionak zure urtebe-tetxean eta ongi pasa. Zure klaseko lagunak. MZD.

• **Kuba** irla atsegin honetatik agur bero bat (hala izan behar bero hauekin) Leitzako 8. mailako ikasle izandakoei. Mikel.



**GIZONEZKOEN
MODA**

**muñeca
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BIAK, IRUNGOr LUIS MARIANON



* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa.

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea – BERA Tfnoa: 63 10 91



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ELIZONDOAR GUZIEI
BESTA ONAK
OPA DIZKIZUEGU



ZURE ETXEBIZITZA EROSTEKO



Pasa zaitez gure
bulegoetatik



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •

XABIER LETE

(Kanta zaharrak eta berriak)

BERAN JAIALDIA

EGUNA: UZTAILAREN 31a, gaueko 10,30etan

LEKUA: BERA KO KULTUR ETXEAN

Antolatzaileak:

BERAKO UDAL KULTUR BATZORDEA
BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

BESTA ZORIONTSUAK DENO!



GANI
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA